

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA ERABILERA EPAITEGIETAN

1. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN EKIMEN OROKORRAK

25 urte betetzear badira ere Euskararen Arauzkutzeko Legea onartu zenetik EAEn, zenbait erakundek egindako azterketei erreparatuz gero, Justizia Administrazioan bide luzea dago aurretik normalizaziora heldu arte.

2001eko udazkenean, Euskararen erabilera proiektua EAeko Justizia Administrazioan ezarri zenetik, bi izan dira helburu nagusiak: batetik, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Justizia Administrazioak ematen duen zerbitzuetan, eta bestetik, hainbat urtetan Justizia Administrazioko funtzionarioen euskalduntzean inbertitutakoa errentabilizatzea.

Baina proiektuaren helburuak zehazterako orduan, horiek lortzeko estrategiak ere bideratu behar dira, eta hori zenbaitetan ez da erreza Justizia Administrazioaren ezaugarri bereziak kontuan hartzen baditugu. Izan ere, Justizia Administrazioaren organoen egituraketa, funtzioak, kokapenak... baldintzatzen dute helburuen lorgarritasuna eta gainera, aurretik zehaztutako helburuak lortzeko, baliabide egokiez hornitu beharko dira organo horiek. Kasu batzuetan eskura dauden baliabideak ez dira nahikoa izango, eta kasu horietan hain zuzen ere, lehenetsunak ezarri beharko dira.

Horrela, muga eta oztopo horiek kontuan hartuta, helburu horiek lortzeko hainbat organo judizial hautatu ziren 2002ko udaberri aldera, eta uda horretarako lehen ekimenak bideratu ziren bake-epaitegietan eta bake-epaitegien elkarteetan, hiriburuetakako informazio zerbitzuetan, barruti batzuetako epaitegi guztietan, Erregistro Zibil batean, Lehen Auzialdiko Epaitegi batean, Instrukzioko Epaitegi batean, Zigor Arloko Epaitegi batean, Probintzia Auzitegiko sekzio bitan eta Auzitegi Nagusiko bi salatan. Hauetariko bakoitzak bere helburuak zehaztu zituen, beren bulegoetan euskararen erabilera bultzatzeko: kalitate taldeen metodologia erabiliz, epaitegietako langileak talde txikitan jardunda adostasunak hartuz, epaitegietako agintedunen onespina lortuz eta Jarraipen Batzordearen bermearekin aurrera eginez. Talde horietako bakoitzean beren beregi zehaztu ziren jarduera planak: arazoak aztertuz lehenik, interbideak emanaz euskara erabiltzeko ahoz zein idatziz bigarrenik eta horien ebaluazioa burutuz azkenik.

Euskararen erabilerearen sustapenaren alorrean lan handia egin da, beraz, azken urteotan. Bide berean, hainbat epaitegitan ahozko nahiz idatzizko moduluak eskaini zaizkie langileei, zerbitzua euskaraz eman ahal izatea eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea baita lan guzti honen helburu.

Zehazki, idatzizko arloari dagokionez, bake epaitegi ez diren gainontzeko epaitegi guztietan eredu jakinak erabiltzen dituzte dokumentuak egiteko, eta elebitako diseinu egokiarekin, elebidunak diren dokumentuak egiten dituzte funtzionarioek. Gaur egun ehunetik gora dira elebitan egiten diren dokumentuak, funtzionarioek euskaraz jakin edo ez. Laguntza moduan epaitegi horietako funtzionarioek *Intraneta* dute, eta beran txertatu zaizkie agiriak izapidetu ahal izateko hiztegiak, lexiko zerrendak, “testu libreen bildumak”, eskuliburuak, audiobisualak etab. Horrez gain, noiz-behinka ikastaroak antolatzen dira, dokumentu elebidunak modu egokian izapidetzen ikas dezaten.

Bake epaitegietan, ordea, ez da horrela gertatzen. Beren-beregi sortu zaie dokumentu guztiak elebitan ateratzeko aplikazioa, *epaiNET* aplikazio informatikoaren laguntzaz. *EpaiNET* aplikazioa hiru helbururekin sortu zen:

- Lanaren kuadeaketa hobetzea
- Idatzizko dokumentazioa bateratzea
- Ahalik eta idatzizko dokumentu gehien euskaraz ere ateratzea, itzulpen automatikoen bitartez

Ahozkoen arloan, lehenik, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzera jo da eta “lehen hitza euskaraz” konpromisoak landu dira esperientzia pilotuetako taldeetan, beranduago, gaitasun handiagoko funtzionarioekin trebatze mintza saioak, terminologiaren inguruko saioak... eta antzekoak egiteko.

Beraz, helburu nagusia euskara erabiltzea izango litzatete, batez ere zerbitzu hizkuntza gisa bermatuz eta, bigarrenik egokiak diren tokietan, baita lan hizkuntza moduan ere.

Baina bestelako lana ere burutzen ari da Justizia Administrazioan:

- Web orrialde ezberdinetan aurki ditzakegun baliabideen inguruko lana, edozein erabiltzailerentzat: laguntza tresnak, gidaliburuak...
- Intranet: bake-epaitegiez kanpoko epaitegietako funtzionarioentzat.
- Extranet: bake epaitegietako funtzionarioentzat
- Euskara Batzordea: gutxi gorabehera, hilabetean behin izaten diren bileretan parte hartzea.
- JustiziaBAT proiektua: bulego judizialen izapidetze eta kudeaketa tresnaren berrikuntzan parte hartze helburu batekin: herriarrei zuzendutako ahalik etadokumnetu gehienetan euskararen presentzia bermatzeko.
- Prestakuntza moduluak: idatzizkoak, non, dokumentu elebidunak nola izapidetu eta tetsu libreak nola erabili bulego judizialeko aplikazioan

azaltzen den. Eta ahozkoak, non, “lehen hitza euskaraz”, mintza-saioak, unitate didaktikoak...lantzen diren.

- Bulego judizialeko dokumentugintza: bulego judizialeko dokumentugintzaren jarraipena eta egokitzapena elebitan (aldaketak, moldaketak, eta proposamen berriak), baita laguntza tresnak sortzea funtzionarioek dokumentuak elebitan atera ahal izateko.
- EpaiNET: bake-epaitegietako aplikazioa elebidunaren garapena (informatikoa, linguistikoa, eta juridikoa) eta hedapena (web-a, eskuliburuak, informatikarien prestakuntza...)

Ikus dezakegunez, beraz, Justizia Administrazioa euskara juridikoaren normalizazio prozesuan, ekimen desbedinak bultzatzen ari da. Eta puntu honetan garrantzitsua iruditzen zait, Justizia Saileko Euskara Batzordea aipatzea. Batzorde honek paper garrantzitsu bat du normalizazio prozesu honetan, eta beharrezko funtzio garrantzitsu bat betetzen du. Horregatik, zehazki, Batzorde honen eta bere egitekoaren inguruan arituko naiz jarraian.

2. JUSTIZIA SAILEKO EUSKARA BATZORDEAREN EKIMENAK

2.1. SORRERA ETA GARAPENA:

Euskarazko agirien beharra ikusirik, 1996an, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren ekimenez, epaitegietako agiriak euskaraz normalizatzeko Batzordea eratu zen, epaitegietako sistema informatikoan txeratutako zeuden gaztelaniazko agiri judizialen idazkera adosteko eta normalizatzeko.

Batzorde horretan hasiera hasieratik bildu ziren Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasleak, EHUKo zuzenbide Fakultatekoak, Herri ardularitzaren Euskal Erakundeko ordezkariak, epaile euskaldunak, abokatu esukaldunak, Justizia Saileko euskara teknikari eta itzultzaileak eta UZEI. UZEI, irabazi-asmorik gabeko elkarte da, euskara berri eta mundu modernora egokitzeko helburuarekin sortua, edozein hiztunek edozein lan-eremutan egokitasunez eta zehaztasunez erabil dezan. Horrela, Batzordea eratu eta denbora gutxira, UZEIri agiri judizialak itzultzeko ardura esleitu zitzaion. Agiriak UZEIk itzuli ondoren, aipatutako erakundeetako ordezkariak bidaltzen zitzaizkien berrikusteko, eta bilerak egiten ziren, batzordekide bakoitzak euskarazko testuaren gainean zituen oharrak azaltzeko eta, denon artean, agirietako terminologia eta idazkera adosteko.

Hasierako urteetan, lana geldoa izan zen, irizpideak bateratu gabe baitzeuden. Batez ere, terminologiaren inguruko desadostasunak eman ziren, eta desadostasun horiek konpontzeko eta ekiditeko *Euskalterm* (UZEIn sortutako datu-base terminologikoa) erabiltzen zen eta batez ere, Euskalterm-en txertatuta zegoen *Zuzenbide Hiztegia*, UZEIk 1985ean, kanpoko hainbat pertsonaren adostasunarekin egindakoa. Hala ere, askotan geratzen zen Batzordea osatzen zuten erakundeek beste euskal ordainen bat erabiltzea zuzenbideko kontzeptu bera izendatzeko. Ondorioz, adostasuna lortu beharra zegoen, agiri judizialean erabiltzen zen terminologia normalizatze aldera, eta, pixkanaka-pixkanaka, lortu zen, irizpideak bateratzea.

Gaur egun, euskara juridikoaren egoera asko hobetu da Hego Euskal Herrian. Euskara juridikoa lantzen diharduten erakundeei esker, zuzenbideko euskal terminologiaren normalizazioan aurrerapauso handiak eman dira eta itzulpengintza juridikoa asko indartu da. Alde batetik, hainbat lege-testu euskaratu dira, eta, horrela, hizkera juridikoaren oinarriko lege-hizkeraren formakuntza ematen ari da euskaraz, IVAP-HAEEen, Deustuko Unibertsitatearen eta EHUren eskutik. Bestetik, unibertsitateetan zuzenbideko ikasgai gehienek eskuliburuak euskaratuta dauzkagu. Eta, gainera, hainbat erakunde elkarlanean aritu dira, azken urteetan, zuzenbideko zenbait arlotako hiztegi eta lexikoak lantzen. Lan horiek guztiak oinarri sendoa dira, bai terminologia aldetik eta bai adierazpide aldetik ere, epaitegietako agiriak itzultzean sortzen zaizkien arazoei aurre egiteko. Legeetan landutako terminologia, bereziki, oso-oso kontuan hartzen dute, lege-testuak edozein testu juridikoren oinarri direlako. Horrez gain, normalizazioari begira, uste dut beharrezko dela lantzen diren agiri judizialeko terminologia eta legetako terminologia bat etortzea.

Testuinguru horretan, Epaitegietako Agiriak Euskaraz Normalizatzeko Batzordean lanean jarraitzen dute, eta inoiz baino indar eta gogo handiagoz, gainera. Terminologia-arazoak askoz ere murriztagoak direnez, testuen idazkeraren gainekoak izaten dira orain, gehienbat, Batzordearen bileretan adosten ibiltzen direnetik. Denon artean, saiatzen dira, euskarazko agiri judizialen idazkera-estiloa finkatzen, eta, ahal denean, itzultzen baino gehiago, gaztelaniazko ereduak euskarara egokitzen ahalegintzen: euskarazko testuak sortzen ariko balira bezala, gaztelaniazko anbigutasunak gaindituz baina, segurtasun juridikoa bermatzeko, gaztelaniaz adierazten den mezua osoa zehatz-mehatz islatuz.

Egokitze lan horretan, ezinbestekoa da zuzenbideko aditu diren batzordekideen laguntza, bai eta era berean batzordekide diren hizkuntzalari eta itzultzaileen laguntza ere, UZEIko lankideen laguntza ahaztu gabe, jakina.

Azken zortzi urteetan Justizia Saileko Euskara Batzordean landu den euskal testugintza juridikoan pausu handiak eman dira: bai terminologia-normalizazioari dagokionez, bai testuen kalitateari dagokionez.

Lanaren errentagarritasunari dagokionez ere, aipagarria da Batzordeak hasierako urteetan batez beste 5-10 dokumentu berrikusten zituela bilera bakoitzean, eta gaur

egun, ordea, berrogei eredu inguru berrikusten dituela. Guztira, ia-ia 1500 eredu itzuli eta normalizatu dituzte zortzi urtetan. EAEko organigrama judiziala osatzen duten epaitegi eta azuitegi gehienetako ereduak euskaratu dituzte: Lehen Auzialdiko Epaitegietakoak, Erregistro Zibilekoak, Instrukzioko Epaitegietakoak, Zigor-arlokoak, Lan-arlokoak, Administrazioarekiko Auzietakoak, Adingabeen Epaitegietakoak, Probintzia Entzutegietakoak, EAEko Auzitegi Nagusikoak, Adingabeen Fiskaltzakoak etab. Guztiak interneten daude kontsultagai, Justizia Sailaren web gunean.

2.2. FUNTZIO NAGUSIA ETA OSAERA

Lehen esan dugunez, Euskara Batzordea duela 10 urte pasa sortu zen epaitegietako sistema informatikoan txertatzen diren agiri judizialak normalizatzeko. Eta, beraz, Batzordearen funtzio nagusia, jurisdikzioka gazteleraz normalizatzen diren agiri judizialak euskaraz normalizatzea da. Horretarako, lehenik gaztelerazko agiri judizialak normalizatzen dira dagozkien lekuetan eta Euskara Batzordeak ondoren, agiri horien euskarazko ereduak adosten ditu.

Honako kideek osatzen dute Euskara Batzordea:

- Epaile euskaldun bat
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoko kide bat
- Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko kide bat
- Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko kide bat
- Unean-unean zeregin horretarako kontratatuta dagoen itzulpen-enpresako bi ordezkari
- Justizia Administrazioako itzultzaile-interpetari bat
- Justizia Sailburuordetzako hizkuntza normalkuntza teknikariak
- Batzordearen koordinatzailea (hizkuntza normalkuntza teknikarietako bat).

2.3 LAN-PROZEDURA

Euskara Batzordearen lan sistema honako hau da:

- 1) Jurisdikzioka gutxinaka gehien erabiltzen diren agiri judizialak aukeratu ondoren, euskaratzera bidaltzen zaizkio zeregin horretarako eta deialdi publikoaren ondorioz hitzarmena egin zaion itzulpen-enpresari.
- 2) Agiri horiek itzulita daudenean, Justizia Administrazioarekiko Harremanerako Zuzendaritzatik batzordekide bakoitzari bidaltzen zaizkio, lehenengo bertsio horren gainean oharrak egin ditzaten, epe jakin batean.
- 3) Ohar horiek aipatutako enpresak bateratu eta batzordekideei bidaltzen zaizkie, denon oharrak bertan ditzutela, bilera aurretik berriz begiratzeko.
- 4) Ondoren, hiru bat astero edo, bilera egiten da agiri horiek behin betikotzat jotzeko eta epaitegietako sistema informatikoan txertatzen dira.
- 5) Esan behar da ez direla behin betikotzat jotzen edukiaren eta hizkuntzaren aldetik egon litezkeen zalantza guztiak argitzen diren arte.

3. ONDORIOAK

Euskara juridikoaren normalizazio prozesuan egiten ari diren ekimenak, eta batez ere Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren Euskara Batzordeak betetzen duen paper garrantzitsua azaldu ondoren, uste dut nabarmena dela eremu honetan ematen ari den garapena.

Azken urteetan batez ere, asko aurreratu den arren, oraindik badago bide luzea egiteke. Izan ere, normalizazio prozesu horren amaieran aurkitzen dugu edozein herritarrek epaitegietan prozesu judizial bat euskaraz jasotzeko ahalmena izatea edota Justizia Administrazioarekin izan dezaketen edozein harremanetan euskaraz aritzeko eskubidea izatea. Aukera hori oraindik ez dago hedaturik Euskal Herrian eta hori litzateteke hain zuzen ere prozesu luze honen helburu eta bilatzen den emaitza.

Normalizazio prozesu honetan erakunde asko dira parte hartzen ari direnak, eta ezin dugu ahaztu, prozesuko beste parte hartzaile garrantzitsu bat gu garela. Horregaitik, gure eskubide eta beharra da, eremu juridikoan ere, bizitzako beste eremuetan bezala euskaraz mintzatzea. Bestela, zertarako prozesu luze hau?

Libe Kobeaga Goitia